

ETXAURI**Aldaketa, Etxauriko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza. Behin betiko onespena**

Udal honek, 2013ko urtarrilaren 18an egin bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

"2012ko uztailearen 5ean egin osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zen Etxauriko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza aldaketa egiteko proiektuaren espedientea, eta hasierako onespeneraren erabakia jendaurrean eduki zen 2012ko 156. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoan, abuztuaren 8an. Epe hori iraganik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen 262, 325 eta 326. artikuluetan xedatuarekin bat, Udaltzarak, osoko bilkuran, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, honako hau,

ERABAKI DU:

1. Aldaketa hasiera batean onestea Etxauriko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza.
2. Espedientea jendaurrean egon den bitartean aurkeztu diren alegazioen gaineko txostena onestea eta aurkeztutako alegazio guztiak ezestea.
3. Ordenantzaren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea."

Etxaurin, 2013ko urtarrilaren 30ean.-Alkatea, Santiago Huarte Astiz.

1. ERANSKINA

LANPOSTUA	MAILA / MOTA	MEREZIMENDUA	NAHITAEZKOA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA
IDAZKARIA	A / Funtzionarioa	X		B2
ADMINISTRARI-OFIZIALA	C/ Funtzionarioa		X	B2
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	D / Funtzionarioa	X		B2
ZERBITZU ANITZETAKOA	D / Funtzionarioa	X		B1
GARBITZAILEA	E / Lan-kontratadun finkoa	X		B1

Iragarkiaren kodea: L1301510